

Berrikuntzak Bera-Beran

Akaba Bera-Bera laugarren postuan sailkatu da Liga Txapelketan. Hortaz, datorren urtean ere Europako txapelketa jokatu du. Dena dela, datorren denboraldian zenbait aldaketa izango dira taldean. Nagusia entrenatzaile aldaketa izango da, Reyes Karrerek ez baitu jarraituko taldea zuzentzen.

Raul Perez

Hirugarren urtez jarraian Akaba Bera-Berak Europarako txartela lortu du. Iaz bezala, aurten ere talde donostiarra laugarren postuan sailkatu da. Azkenaurreko partidatan, Itxarko taldea nafarraren kontra ziurtatu zuen Bera-Berak laugarren postua. Reyes Karrereren neskek Liga Txapelketa hasiera bikaina egin zuten. Alacanteko Elda Bidebietan gainditu eta gero, bere multzoko liderrak izan ziren. Europako Txapelketan iaz baino hobeto ibili zen Bera-Bera eta lehen kanporaketa gainditu zuen.

Denboraldiko bigarren zatian, aldiz, taldeak ezin izan dio hasierako mailari eutsi eta ozta-ozta lortu du laugarren postua.

Aldaketak datoren denboraldian

Maiatza hasieran taldeko agintariek jakinarazi zuten datorren denboraldiari begira aldaketa nagusia entrenatzailearena izango dela. Izan ere, hiru urtez taldea zuzendu eta gero, Reyes Karrerek ez du aulkian jarraituko. Reyesek 1999-2000 denboraldian hartu zuen taldea zuzentzeko ardura, zenbait urtez taldeko jokalaria

Jose Luis Villanueva da Bera-Beraren entrenatzaile berria

nagusienetakoa izan eta gero. Reyes hiru denboraldiz izan da taldeko entrenatzaile eta horietan guztietan Bera-Bera Europako txapelketan sartu da. Taldeko zuzendaritzak Reyes Karrerek taldean beste eginkizun batekin jarrai dezan nahi dute. Reyesek, ordea, oraindik ez du erabakirik hartu eta, beraz, argitzeke dago errenteriarak taldean jarraituko duen edo ez. Jose Luis Villanueva kataluniarra izango da entrenatzaile datorren denboraldian. Villanueva emakumezkoen zein gizonezkoen zenbait taldeetan aritu da.

Jokalariei dagokienez, gehienek taldean jarraituko dute. Dena dela, entrenatzaile berriak taldea sendotu nahi du fitxaketaren batekin. Nolanahi ere, aldaketak ez dira taldera mugatzen. Datorren denboraldian Liga Txapelketan ere aldaketak izango dira. Azken urteetan Ohorezko Mailako taldeak bi multzotan banatuta aritu dira, baina datorren denboraldian talde guztiak multzo berean ariko dira.


Dominak Donostia Kayakentzat

Donostia Kayakeko piragulstek bi domina eskuratu dituzte jokatu berri den autonomia erkidegoen arteko Txapelketan. Ekaitz Salesek zilarrezko domina lortu zuen K-4ean. Aitor Irulegi, berriz, hirugarren sailkatu zen K-4ean eta beraz, brontzeko dominarekin etxeratu zen.



Emitza onak aulki mugikorrean

Joan den igandean Legutión jokatu zen Euskal Herriko Aulki Mugikorreko Txapelketa. Gizonezkoetan Ur Kirolakeko zortzikoa bigarren sailkatu zen, oriotarren atzetik. Bestalde, emakumezkoetan Donostia-Arraun scull bi koitzean Itsasoko Amarekin aritu zen norbaiten aurretik. Donostia-Arraunekoak ere bigarren postuan sailkatu ziren.



Reala eta Atletiko koparen bila

Asteburu honetan, Realak eta Donostiako Atletikoak bi taldeek kopa jokatu dute. Realak Sardineroko talde kantabriarraren aurka jokatu du lehen kanporaketa eta Donostiako Atletikoak, berriz, C.D. Terrasa izango du aretoa.



Argazkian 2001-2002 denboraldiko taldea.